

Hankak arinak

Herri guztietako jaietan,
gehienetan, dantzaldiak dira
gaueko ekitaldi nagusiak

EGURALDI ederren sasoiaren hemen daukagun honetan, plazetako musika taldeak dagoeneko hasiak dira musika tresnei hautsa kentzen.

Denborarekin erromeri talde asko sortu dira, eskaria erantzun nahian. Hala eta guztiz ere, «antzinako dantzaldi giroa galtzen ari da, batez ere Gipuzkoan», esan du Joxek, Arkaitz musika taldeko partaideak.

Euskal Herri guztian zehar mugitzen dira talde hauek, baina Joxeren ustez, «eskaera handiena Bizkaia aldean dago. Gipuzkoa aldean, berriz, antzinako erromeri giroa galtzen ari da, jende gehienak nahiago du tabernetan sartu».

• Dantzagarriak oinarri

Betiko kantuak jotzen dira, badakitelako jendeak ongi erantzuten duela. Halere, musika berriekin probatzen dute eta balorazioa, jendearen erantzunaren arabera egiten dute. Azken batean, erromeri talde gehienek kasuan, helburu nagusia musika dantzagarriak egitea

da. Beste askorekin batera, Arkaitz eta Luhartz taldeen kasua dugu hori esaterako. «Jendeak espero duena ematen saiatu behar dugu», diote.

Jendearen parte-hartzeari dagokionez, duela bi urtetik honera ahuldu dela diote baina «gorabeherak daude; taldearen edota denboraldiaren arabera jendearen partizipazioa aldatzen da». Rafa, Luhartz-eko soinu-jolearen ustez, Herri zein hiri batekoa izan, jendeari dantzatzeari gustatzen zaio, baina «bentako giroa herri txikiagoetan» aurkitzen dela uste du Joxek.

Hiri eta herriak

Herri edo hiri batean jotzeko ere erreakzio ezberdinak sortzen ditu jendearen artean. Nahiz eta herrietan jende gutxiago egon, edozein erromeri giroa berotzeko nahikoak omen dira. Hirietan, berriz, jendeak dantzatzeko duela diote baina giro hotzago batean.

Halako taldeek
izaera bat dute eta
ezberdintasuna
egon arren, ildo bera
lantzen dute



BOB EDME

Herri bakoitzean era batera edo bestera bizi du txarangen giroa jendeak.

• Gero eta gehiago plazetan

Kompetentzia gero eta handiagoa da plazak girotzen dituzten musika taldeen artean; izan ere, azken urteetan talde asko sortu dira.

Egoera honek arazoak sortzen ditu lana aurkitzeko orduan. Horri loturik baina, beste arazo bat aurkitzen dute erromeri taldeek: ekonomikoa, hain zuzen ere. Aktuzioetatik sartzen den dirua partaideen poltsikoetara doala ere, beste zati bat ekipoa erosi eta zaintzeko behar dute. Desoreka kontu bat dago, zeren «erosi behar dituzun

gauzen prezioak gorantz doazen bitartean herrietako aurrerakuntza jaisten doa». Egoera honek eragin handiagoa du musikaren mundu hau bizimodu bezala dutenentzat, zailtasun modura hartzen dutenentzat baino. Luhartz-eko soinu-jolearen arabera, «ehun bat aktuzio egin behar dira bizitzeko adina diru ateratzeko, eta gaur egun mundu honetan gabiltzan talde kopurua ikusirik zaila da».

Antolamendua ere askotan oztopo bat bihurtu daiteke gauzak egiteko orduan. Hartu-neak gaizki egotea, oholza altuegia edo txikiégia izatea, furgoneta sartzeko tokirik ez egotea dira, besteak beste.

Musika estilo ezberdinak jotzen dituzten taldeak dau-

dela ere, plazetako musika taldeen programa berdintsua da. «Halako taldeek izaera bat dute eta, ezberdintasunak egon arren, ildo berdintsua daramagu; azken batean, gure helburua jendea dantzatzeko da», Joxeren hitzetan. Bestalde, kantuen egokitza-pen asko egiten dira, eta gehienak euskaraz itzuliak izaten dira.

Festak hemen dira eta plazetako erromerietan dantzatzeko garaia baita ere. Gortzek mugimendu pixka bat eskertuko dute. Halere, ez da eskertuko duen bakarra izango. Izan ere, musikariak poz-tuko dira beren helburuetako bat betetzen dela ikus-tetan; jendea dantzatzeari, alegia.

SAKANAKO TRIKITILARIAK

Erromeriak, kalejirak, bazkari-afariak...
Taldea nahiz bikoteka.

Telefona: 948 46 03 35 (Patxi)

INGUNZA
SONIDO
PROFESIONALA

Alokairua • Salmenta • Instalazioa

☎ 94 473 16 29 Faxa: 94 473 01 44

Antonio Egiluz Medikua, 3. Lonja esk. - BILBO



KUKUMA ESKULANAK

-Txontxongilogintza
-Panpinak orokorrean
-Maskarak(goma espuma, latex,...)
-Esenografiak
-Hankapaluak (ikastaroak)

Tel.: 617284062
617284065 Mikel

HIKA TEATROA - 943 47 26 88 (Belen)

"HAU KOMERIA!" (Komedia musikala)
"XAGUKUMEAK" (Haurrentzat)
"ARRAUTZA DELIKATUAK" (Kafe-teatro)

INPRIMATEGIA



azkarprint

Cercas Bajas, 4 - GASTEIZ

aurrera euskaraz!



SOINU eta ARGIAK

948 54 66 48 / 629 83 81 77